

Jesusen Bataioa

Aldatu zuen bizimodua eta izan pertsona hobeak.




Garai hartan, 30 urterekin, Jesus bere herrialdean zehar bidaiatzen hasi zen.

Jordan ibaira joan zen, Joanek bataia zezan.

Jesus bataiatzera agertu zenean, Joan harrituta geratu zen, Jesusek ez baitzuen inoiz ezer txarrik egin.

Hau da nire seme maitea. Entzun iezaiozue.




Joan Bataiatzailea Jesusen lehengusua zen, eta Salbatzailearen etorreraren berri ona ematen ibili zen. Jainkoaren planaren arabera bizitzera animatzen zituen denak.

Jendea hurbildu egiten zitzaion, nola salba zitekeen galdetzera. Joanek jokabide okerrak alde batera uzteko eta Jainkoaren borondatearen arabera bizitzeko esaten zien. Gero, Jordan ibaian bataiatu egiten zituen.

Jainkoak barkatu egiten zaitu.

Bizi zaitez Jainkoaren planaren arabera.



Joanek Jesus bataiatu behar zuen. Eta hura uretatik irten zenean, Jainkoaren ahotsa entzun zen.

Jesus poz-pezik irten zen uretatik eta guztiek Jainkoa ezagutu zezaten nahi zuen. Horrela hasi zen bere misioa betetzen; hau da, herriz herri Jainkoaren maitasunaren berri ona ematen.

Lukas 3

ARIKETAK

1) Ordenatu eszena hauek. Desordenatuta daude.



a) Zein eszena da lehena? (Jesus, usoa ala jendearena?)

a) Zein eszena da bigarrena? (Jesus, usoa ala jendearena?)

b) Zein eszena da hirugarrena? (Jesus, usoa ala jendearena?)

2) Eman erantzuna hurrengo galdera honi:

Zer ari zen Joan Jordan ibaian eta nor bataiatu zuen han? Esan (E) egia ala (G) gezurra diren.

a) Jesusengan sinesten ez zutenak bataiatzen zituen. Jesus bataiatu zuen han.

☐

b) Jesusengan sinesten zutenak bataiatzen zituen. Jesus bataiatu zuen han.

☐

c) Herritar guztiak bataiatzen zituen. Jesusek bera bataiatu zuen han.

☐